

Alkate agurgarri hori:

Estimada alcaldesa:

Santurtziko ikastetxe guztietako ikasleak gara. Hurrengo hauetakoak hain zuzen:

Somos escolares de todos los colegios de Santurtzi. Venimos de:

- ITSASOKO AMA
- EMILIA ZUZA BRUN
- SERANTES
- STA. EULALIA
- BIHOTZ GAZTEA
- SAN FRANCISCO JAVIER
- SAN JOSE- CARMELITAS
- SAN JOSE DE CALASANZ
- STA. MARIA- HIJAS DE LA CRUZ
- SAN JORGE
- AXULAR
- KANTAURI

- ITSASOKO AMA
- MAESTRA EMILIA ZUZA BRUN
- SERANTES
- STA. EULALIA
- BIHOTZ GAZTEA
- SAN FRANCISCO JAVIER
- SAN JOSE- CARMELITAS
- SAN JOSE DE CALASANZ
- STA. MARIA- HIJAS DE LA CRUZ
- SAN JORGE
- AXULAR
- KANTAURI

Hainbat zentro eta adinetako ikasleak garen arren, helburu berbera gogoan aritu gara lanean. Uste dugu garrantzitsua dela gure herriko alkateak ingurumenarekin dugun konpromisoaren berri izatea, bai eta jakitea ere berau hobetzeko asmoz etorri garela hona.

Son diferentes centros y tenemos distinta edad, pero todos tenemos los mismos objetivos. Creemos que es importante que nuestra alcaldesa conozca nuestro compromiso con el medio ambiente y que estamos aquí para mejorarlo.

Ikasturtearen hasieran eskatu zenigun bezala, aurten **Santurtziko Tokiko Agenda 21ean sartzeko hainbat ekintza** proposatu ditugu.

Hilaren 3an, osteguna, Santurtziko Tokiko Agenda 21ean parte hartzen dugun zentroetako Eskoletako Agenda 21eko kideok Casa Torre jauregian elkartu ginen batzar batean.

Batzarraren helburua zera zen, orain arte egindako lana laburtu eta Santurtziko ingurumena hobetzen lagunduko digun dokumentua egitea, gaur Osoko Bilkura Txiki honetan Santurtziko alkate andreari aurkeztuko diogun dokumentua hain zuzen.

Batetik, uste dugu proposamen hauek ezin interesgarriagoak direla gure herria hobetzeko: Bestetik, bikain iritzi diogu ikastetxe guztietako ikasleei parte hartzeko aukera emateari, elkarrekin Santurtzi hobetzeko ideia gehiago jorratuko ditugu eta.

Casa Torre jauregiko batzarrean, zentro bakoitzak egindako proposamenak eta hartutako konpromisoaz jardun genuen. Horrela bada, egindako lana gaika antolatu dugu.

Lehenengo eta behin **lurralde eta planeamenduari** ekin genion, eta hurrengo proposamen interesgarri hauek bildu genituen:

Tal y como nos pediste a principio de curso, este año nos hemos dedicado a pensar **qué cosas queremos que sean incluidas en la nueva Agenda Local 21 de Santurtzi.**

El pasado jueves 3 de mayo, los miembros de las Agendas 21 Escolares de los centros que toman parte en la Agenda 21 Escolar de Santurtzi participamos en una reunión celebrada en la Casa Torre.

El objetivo de esta reunión era elaborar el documento que resuma nuestro trabajo y ayude a mejorar el Medio ambiente de Santurtzi y que hoy presentamos a la Sra. Alcaldesa de Santurtzi en este Pleno txiki municipal.

Por un lado, consideramos interesantes estas propuestas para mejorar el municipio. Por otro, creemos que invitar al diferente alumnado, de los diferentes colegios es todo un acierto ya que de esta forma podemos poner más ideas en común para mejorar Santurtzi.

En la reunión de casa Torre, se pusieron en común las propuestas y compromisos aportados por cada centro. El trabajo realizado lo hemos ordenado por temáticas.

El primer tema que tratamos fue el del **territorio y planeamiento**, siendo estas las propuestas más interesantes al respecto:

- Uste dugu haur-parkeetan sabaiak jarri beharko liratekeela, gazteok kalean egon eta jolasteko eskubidea dugulako euria ari duenean. Gainera, elementu natural gehiago (harria, egurra, harea...) dituzten parke gehiago egitea nahiko genuke.
- Horrez gain, uste dugu oso garrantzitsua dela Antonio Alzaga kaleko funikularra ahalik eta lasterren konpontzea herritarren hobe beharrez.
- Zentro publikoak arratsaldez zabalik egotea proposatzen dugu, jolastokia arratsaldez ere erabiltzeko aukera izan dezagun.
- Garrantzitsu deritzogu herrian lorategi eta berdegune gehiago izateari.
- Uste dugu Beheko Ospitale Aldapa kalea eta Bullon auzoaren arteko tartean espaloia egin beharko litzatekeela.
- Trenbidean pilota-lekua egitea nahi genuke, bai eta zelai bat ere txakurrak solte ibil daitezzen.
- Azkenik, gure ustez, kale estuak zabaltzea ere ona litzateke herrirako.
- Creemos que se deberían colocar techos en los parques infantiles, ya que los más jóvenes tenemos también derecho a disfrutar y jugar en la calle cuando llueve. Además nos gustaría que se hicieran parques con más elementos naturales (piedra, madera, arena...)
- También pensamos que es muy importante arreglar, con mayor rapidez el funicular que da acceso a la calle Antonio Alzaga, para que no se creen dificultades para la ciudadanía.
- Otra propuesta es la de mantener las puertas de los centros públicos abiertas por las tardes, para así, poder aprovechar el patio para jugar.
- Nos parece importante que se creen más jardines y zonas verdes en el pueblo.
- Creemos que se debe construir una acera que conecte la calle de Cuesta Hospital Bajo con el barrio Bullón.
- Nos gustaría que en la zona de las vías del tren se hiciera un frontón, así como una campa apta para tener los perros sueltos.
- Por último, es importante que se ensanchen las calles estrechas.

Mugikortasunari ere garrantzi handia eman diogu gure lanean, eta honako proposamen hauek jaso ditugu:

- Uste dugu urtetan eskatu bezala, Santurtzin bidegorria egin beharko litzatekeela.
- Horrez gain, interesgarria litzateke herrian bizikletak alokatzeko zerbitzua sortzea.
- Beharrezkoa da arranpa gehiago egitea mugikortasun murriztua duten herritarren irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetze aldera.
- Azkenik, interesgarri deritzogu portuan piraguak eta txalupak alokatzeko zerbitzua eskaintzeari.

Biodibertsitatea ere landu dugu ikasturte honetan eta hemen bildu ditugu jasotako ideiarik garrantzitsuenak:

- Uste dugu ezin garrantzitsuagoa dela Serantes mendiari bulkada ematea, bera baita Santurtziren ikur nagusia. Horretarako materiala berritu liteke (iturriak, mahaiak, bankuak...), bidea markatzeko seinaleak jarri eta animalien espezie eta zuhaitzei buruzko

El siguiente tema que nos pareció imprescindible trabajar fue el de la **movilidad** y estas son las propuestas más interesantes que pensamos:

- Creemos, que después de llevar muchos años consecutivos pidiéndolo es muy importante construir un bidegorri en Santurtzi.
- También sería interesante crear un servicio de alquiler de bicicletas en el pueblo.
- Pensamos que es necesario construir más rampas para mejorar la accesibilidad y movilidad de las personas discapacitadas.
- Para acabar, nos parece interesante ofrecer un servicio de alquiler de piraguas y txalupas en el puerto.

Otro de los temas que hemos trabajado durante el curso escolar ha sido el de la **biodiversidad** y estas son las ideas más importantes que hemos sacado:

- Creemos muy importante darle un impulso al Monte Serantes, emblema de Santurtzi. Para ello podría renovarse el material existente (fuentes, mesas, bancos...), colocar señalización que marque el camino, e introducir información sobre las especies animales y los árboles

informazioa aditzera eman.

- Serantes mendian interpretazio-zentroa ere jar liteke.
- Uste dugu beharrezkoa dela udalak zentroentzat biodibertsitateari buruzko bisita gidatuak antolatzea.
- Pentsatu dugu ikastetxeetan baratzak sor litezkeela, egunero maila jakin bateko ikasleek hartuz baratzaren gaineko ardura euren gain.
- Gainera, gure ustez, oso garrantzitsua da Santurtzin espezie autoktonoak landatzea.
- Bestalde, “Itsasadarraren Eguna” ezar liteke eta ospatu.

Hondakinez ere aritu gara eta honako ekimen interesgarri hauek bildu ditugu:

- Portua sarriago garbitu eta hondakinak araztegiara eraman beharko lirateke.
- Interesgarria litzateke herritarren garbiketa-taldea sortzea, astean behin garbitzeko.
- Garrantzitsu deritzogu ataletan banatutako paperontzi gehiago

que hay.

- También nos gustaría poder disfrutar de un centro de interpretación en el Serantes.
- Creemos necesario que el ayuntamiento organice para los centros visitas guiadas sobre biodiversidad.
- Hemos pensado que en cada colegio podría crearse un huerto, de manera que cada día un curso diferente sea el responsable de su cuidado.
- Además, creemos que es muy importante volver a plantar especies autóctonas en Santurtzi.
- Por otro lado, proponemos que se celebre “El día de la Ría”.

Respecto a los **residuos**, hemos pensado que estas son las iniciativas más interesantes:

- Se debe limpiar con más frecuencia el puerto y desviar los residuos a una depuradora.
- Sería interesante crear un equipo de limpieza ciudadana organizado para limpiar una vez a la semana.
- Creemos necesario colocar más papeleras clasificadas,

jartzea irudiak eta guzti, herritarrei kontzientzia harrarazteko.

- Uste dugu ezinbestekoa dela zarama organikorako edukiontzi bereziak jartzea.
- Plastikozko poltsarik gabeko herria nahi genuke, eta horretarako ondo legoke bestelako materialez egindako poltsen erabilera sustatzea. Gure esku dago!

Bestalde, uste dugu Santurtzin **energia** gehiegi xahutzen dugula, horregatik, beharrezkoa da baliabide energetikoak egoki erabiltzea. Horretarako gure ustez:

- Energia berriztagarriak gehiago erabili behar dira (energia eolikoa, eguzki-plakak...).
- Horrez gain, uste dugu kontsumo baxuko argiak eta kale-argi efizienteak jartzeak lagundu lezakeela energia-kontsumoa murrizten.
- Azkenik, uste dugu udalak hornitzaileei exijitu beharko liekeela saltzen dizkioten produktuak ingurumenerako kaltegarriak ez izatea.

Uste dugu proposatzen ditugun ekimen hauek herrian energia-kontsumoa murrizteko lagungarriak izango liratekeela.

acompañadas de imágenes para concienciar a la población.

- A su vez, también pensamos que es necesario poner contenedores orgánicos.
- Nos gustaría también conseguir un Santurtzi sin bolsas de plástico, realizando para ello actividades que impulsen el uso de otros materiales. ¡Está en nuestras manos!

Por otra parte, creemos que malgastamos demasiada **energía** en Santurtzi y es por ello que vemos necesario que se haga una buena utilización de los recursos energéticos. Para lograrlo pensamos que:

- Se deben utilizar más las energías renovables (energía eólica, placas solares...).
- También creemos que colocar luces de bajo consumo y farolas eficientes puede contribuir a reducir el consumo de energía.
- Por último, pensamos que el ayuntamiento haría bien en exigir a sus proveedores que los productos que les vendan sean respetuosos con el medio ambiente.

Consideramos que estas iniciativas que proponemos contribuirían a reducir el consumo de energía en el

Geu hasiak gara eskoletan murrizten eta jakin badakigu ederto dabilela!

pueblo. Nosotros ya hemos empezado a reducir el nuestro en las escuelas y ¡sabemos que funciona!

Eskola-zentroetan **Aldaketa klimatikoa** apenas landu da, beharbada ez gaudelako horrekin nahikoa kontzientzia hartuta. Hori ikusita, gure ustez:

- Komenigarria litzateke herritarrei ikusaraztea konponketa guztion esku dagoela.
- Horregatik, gure zentroetako irakasleei laguntza eta informazioa eskatzen diegu aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan aktiboki parte har dezagun.

Ekonomia gaiari dagokionez zenbait zentrok botatako proposamenak batu ditugu, nabarmenenak hauexek:

- Produktu ekologiko eta bigarren eskukoak saltzeko azoka txikiak dirua aurrezteko lagungarriak lirateke, dirua aurreztu ez ezik elikadura osasungarri eta egokia ere izango genuke eta erabiltzen ez dena berrerabiltzea lortuko genuke. Berorren onuraren froga gisa hona hemen ikasketa-zentrootan abian jarritako

El **cambio climático** es un tema que no se ha tocado a penas en los centros escolares, quizá por la falta de concienciación sobre ello, por lo que pensamos que:

- Sería conveniente realizar campañas para hacer ver a la población que la solución está en manos de todos.
- Por ello, pedimos también al profesorado de nuestros centros que nos ayuden y faciliten la información necesaria para poder participar activamente en la lucha contra el cambio climático.

En el tema de **economía** nos hemos encontrado con varias propuestas de distintos centros y entre ellas queremos destacar estas:

- El ahorro económico que supondría crear mercadillos con productos ecológicos y de segunda mano. Esto supondría un ahorro en las economías familiares, a la vez que se mantendría una alimentación saludable y adecuada y se conseguiría reutilizar lo que ya no se usa. Como prueba de que esto funcionaría los centros aportamos nuestras experiencias, como son: la

esperientziak: asteko egun bat ezartzea atsedendian fruta jateko edo Gabonetan azoka solidarioa antolatzea. Horrez gain, jarduera horietan aktiboki parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu.

fijación de un día semanal para comer fruta en el patio o la de realizar un mercado solidario en Navidad. Además, nos comprometemos a participar activamente en estas actividades.

Kultura, kirola eta euskararekin lotuta, honako hau proposatzen dugu:

En relación con la **cultura, el deporte y el euskera**, nos gustaría que:

- Santurtzin rokodromoa eraikitzea eskaladan hasi eta praktikatzeko.
- Herriko historiari buruzko hitzaldi informatiboak eskain litezke, hobeto ezagutu dezagun.
- Azkenik, Santurtzin euskara gehiagotan entzun nahi genuke; hortaz, uste dugu primeran legokeela berorren erabilera sustatzeko zenbait ekimen egitea.

- Se construyese un rocódromo en Santurtzi para poder iniciarnos y practicar escalada.
- También sería interesante ofrecer charlas informativas sobre la historia del pueblo, para conocerlo mejor.
- Por último, nos gustaría que en Santurtzi se escuchase más hablar en euskera, por lo que creemos que es necesario fomentar su uso mediante diferentes actividades.

Ongizate eta gizarteratzeaz zera esan dezakegu: gure aiton-amonen jatorria aztertuta konturatu gara ia penintsula osoko herentzia kulturala dugula, bai eta Kanariar Irla eta Hego Amerikako zenbait herritakoa ere. Horrela bada, kultura, erlijioa edo arraza dela-eta, inor ez baztertzeko konpromisoa hartzen dugu, bai eta kide berriei harrera ona egiteko ere bereziki hizkuntzaren jabe ez direnei.

En cuanto al **bienestar e inclusión social**, hemos analizado de dónde son nuestros abuelos y nos hemos dado cuenta de que tenemos una herencia cultural de casi toda la península, de las Islas Canarias y de muchos países sudamericanos. Por ello, nos comprometemos a no discriminar a ningún compañero por su cultura, religión o raza y a acoger a los nuevos compañeros, especialmente a los que desconozcan el idioma. También

Horrez gain, gure zentroan elkarrekin bizi diren kulturetatik ikasi nahi dugu, elkarbizitzan ere hobetu dezagun.

- Udalak kultura anitzeko jardunaldiak antolatzea proposatzen dugu, non Santurtzin bizi diren herrialde guztietako kolektiboek euren kultura erakutsiko diguten, elkar hobeto ezagutu eta errespetatu ditzagun.
- Bestalde, udalaren berdintasun-planaren gainean aritu gara lanean eta uste dugu ekimen gehiago jarri beharko liratekeela abian berdintasuna sustatzeko.
- Garrantzitsu deritzogu droga, alkohol eta abarrei buruzko prestakuntza-tailer gehiago antolatzeari.

Jorratu den beste gai interesgarri bat **urarena** izan da. Hona hemen gure proposamenak:

- Udalerriaren hondakin-urak kanalizatu beharko liratekeela uste dugu.
- Horrez gain, interesgarri deritzogu iturrietan txorrota edo palankak ezartzeari uraren kontsumoa murrizte aldera.

Azkenik, beste gai batzuen inguruan honako eskari hauek bildu ditugu:

queremos aprender de las diferentes culturas que conviven en nuestro centro para mejorar la convivencia entre todos.

- Proponemos al ayuntamiento que realice jornadas multiculturales en las que los colectivos de los diferentes países que conviven en Santurtzi nos muestren su cultura, para conocernos mejor y respetarnos.
- Por otro lado, hemos trabajado sobre el plan de igualdad del ayuntamiento y creemos que se deberían realizar más actividades para fomentar la igualdad.
- También nos parece importante realizar más talleres informativos acerca de las drogas, alcohol...

Otro tema importante trabajado durante el año es el del **agua**. Estas son nuestras propuestas:

- Creemos que se deberían canalizar las aguas residuales del municipio.
- También nos parece muy interesante colocar grifos o palancas en las fuentes para intentar reducir el consumo de agua.

Por último, en el apartado de otros temas, realizamos estas peticiones:

- Urtero legez, gazteen aisialdirako toki bat eskatzen dugu, Gazteleku bat adibidez.
- Banku luzeago eta zirkulu-erdi formadunak nahiko genituzke, aurrez aurre eserita egoteko eta horrela errazago hitz egiteko.
- Egokia litzateke liburutegia igandeetan zabaltzea eta irakurketa-klubak sortzea.
- Zarata-maila murrizteko ekintzak egitea nahiko genuke.
- Udala modernizatu eta paperean aurreztea nahiko genuke, horren ordez bitarteko digitalak erabiliz (webgunea, posta elektronikoa...).
- Azkenik, uste dugu herriko umeei zuzendutako eskaintza hobetu beharko litzatekeela, tailerrak, zinea, antzerki-lanak, kontzertuak, jolas puzgarriak edo eurentzako beren-beregi ekarritako ipuin-kontalarien saioak antolatuz.
- Como todos los años, pedimos un lugar de ocio para los jóvenes, que podría ser un Gazteleku.
- También nos gustaría tener más bancos más largos y en forma de semicírculo para poder relacionarnos cara a cara estando sentados.
- Podría ser muy útil abrir la biblioteca los domingos y crear clubs de lectura.
- En relación con el ruido, nos gustaría que se llevaran a cabo acciones para reducirlo.
- Nos gustaría que el ayuntamiento se modernizará y ahorrara en papel utilizando medios digitales (web, correo electrónico...)
- Para acabar, creemos que se debe mejorar la oferta para los niños en el pueblo, con talleres, cine, teatros, conciertos, hinchables o cuentacuentos dirigidos a nosotros.

Esanak esan, espero dugu gure proposamenak kontuan hartu eta Tokiko Ekintza Planaren berrazterketan sartzea, azken batean, herriaren hobe beharra gogoan egin ditugu. Garrantzitsua da gazteok udalarekin batera lan egitea, jakitun baikara etorkizuna, neurri handi

Después de todo lo mencionado, confiamos en que nuestras propuestas sean consideradas para incluirse en la revisión del Plan de Acción Local, ya que al fin y al cabo están pensadas para mejorar el pueblo. Es importante que los más jóvenes trabajemos junto al ayuntamiento porque somos

batean, gure esku dagoela. Argi dago honelako batzar eta ekimenak Santurtzirentzat onuragarriak direla eta hortaz, espero dugu honakoa azkena ez izatea.

Adeitasunez,

Agenda 21eko batzordea.

conscientes de que el futuro, en gran medida, depende de nosotros y nosotras. Desde luego, este tipo de reuniones e iniciativas benefician a Santurtzi, por lo tanto esperamos que ésta, no sea la última.

Saludos,

Comité de Agenda 21.